



Txistu Symphonic
Garikoitz Mendizabal &
The Bratislava Symphony Orchestra
Hautsi records, 2012

Tradizioaren ikuspegi berri bat, txistuz

2005ean egin nuen topo Garikoitz Mendizabalekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Maite zaitut* diskoaren grabazioan. Andoaingo Garate estudioan sartu nintzen unean, zestoarra *Txorroskileroa* kantaren melodia ari zen grabatzen, eta aitortu behar dut bere abileziak txundituta utzi ninduela. Ez nuen uste hiru zulo besterik ez dituen instrumentuari horrelako zukua ateratzea posible zenik. Grabazio hartan bere gaitasunaren lekuko izateko aukera izan nuen, eta orain, 8 urte geroago, The Bratislava Symphony Orkestrarekin batera grabatutako diskoa entzutean, musikarekiko bere maisutasunaz jabetzeko aukera izan dut.

Txistulari zestoarrak lortu ezina zirudien ametsa bete du. Bi urte luze iraun duen proiektu honekin, zailtasunak ilusioz eta ausardiaz gaindituz, orkestra sinfoniko batekin jotzearen erronkari egin dio aurre. Txalotzekoa da egindako ahalegina, baita lortutako emaitza ere, lan dotorea aurkeztu baitigu benetan. Garikoitz Mendizabalen interpretazioak gorenera eraman du txistua, egunorokotasunean erraz aurkitzen dugun instrumentu horretarako trebetasun nabarmena erakutsiz. Txistulariaren talentua orkestrako gainontzeko musikariek pareka daiteke, eta argi geratu da, solista izateko haina meritu baduela.

Txistu symphonic diskoan txistu errepertorio ohi-koan dauden Solozabal, Guridi, Bastida, Olaizola eta Ansorena maisuen lanak bildu dira. Mendizabalen helburu nagusia, etorkizunean bertako eta atzerriko orkestrek joko dituzten piezak biltzea izan da.

Grabazioan, musika estilo ugari entzun ditzazkegu, besteak beste dantzak, doinu eta bariazioak edo euskal kantutegiko pieza ederrak. Jatorrizko doinu aberatsek aparteko ukitua jaso dute txistulariaren interpretazioari eta orkestraren sonoritate ikusgarriari esker. Abesti gehienak ezagunak izan arren, lehenengo aldiz entzungo dituenaren arreta mailari berari eusten zaio. Erne mantentzen zaitu hasierako konpasetik azken notaraino eta ustekabeen harropatuko zaituen giroaren zain egongo zara.

Garikoitz Mendizabalek aurkezten dizkigun



hamaika abestien artean badira Xabier Zabala zarautzarrak egindako bi: *Ondoan* eta *Irribarrea*. Melodia zoragarri hauek emozioak azaleratzeko indarra dute, eta filmetako soinu banden antzera, arreta erakartzeko bertutea.

Orkestra zuzendariaren lana ere goraipatzekoa da. Munichen bizi den Enrique Ugarte tolosarrak bere profesionaltasuna erakutsi du, eta adorez bete du bere zuzendari rola. Aipatzekoa da halaber, Mikel F.Krutzaga soinu teknikariaren zeregina, neurri handi batean, grabazio eta nahasketa lanek azken emaitza borobiltzen lagundu dutelako.

Gertuko musikaria dugu txistularia. Edozein ospakizun dela eta, hortxe izango dugu dantza taldeari erritmoa jartzen, buruhandi eta erraldoiekin kalejiran, igande goizeko darian edota ekitaldi korporatibo baten irekieran. Ezagun daeuskaldunon artean bizirik dirauen instrumenturik zaharrenetakoak Euskal Herriko bazterrek pizten jarraitzen duela.

Tradizioaren haritik, txistuaren bilakaeran bide berriak arakatuz doa Garikoitz Mendizabal. Disko honekin, ezaguna denari beste ikuspegi batetik begiratzeko gonbitea luzatu digu. ■

Olatz Korta

